



*Barbadun  
ibai ondoko  
pasealekua  
luzatzea*

*/3. orria*

*GLLk  
esleितutako  
partiden  
kontrola*

*/2. orria*

*80 urtetik  
gorakoen  
segurtasuna  
handitu da*

*/4. orria*

*Bizkortze kardio-  
pulmonarraren  
arloko  
prestakuntza*

*/5. orria*

*Barbadun  
Pelotazale  
Elkartea*

*/6. orria*

## Editoriala

### Zintzotasuna, gogoia, ahalegina eta gardentasuna

Horiek izan dira gure ezaugarriak azken hiru urte eta erdian, gogotik egin baitugu lan Muskizko pertsonen bizikaltatea hobetzeko. Erabakiak hartu ahal izateko, ideien eta proiektuen berri izan dugu, horiei buruz galdetu dugu eta aztertu egin ditugu, ahalik eta behar gehienak asetzeko ilusioarekin. Hausnartutako erabakiak izan dira, planifikatuak, eta, nahiz eta ezin diren sekula guzti-guztien gustukoak izan, kolektiboarentzat onena bilatzeko ilusioari eta zintzotasunari eutsi diogu beti.

Zerbait "erabakitzea" gauza erraza eta zaila da aldi berean, eta behar-beharrezkoa da geldirik ez geratzeko. Erabakirik Ezak paralisia dakar.

Proiektu eta ilusio asko jarri ditugu martxan, eta horretan jarraitzen dugu: enplegua sustatzeko ekintzak abiatzea, haur-parkeak berritzea, hainbat auzotarako bideak egitea, espaloiak zabaltzea, oinarritzko azpiegiturak berritzea (saneamendua, edateko uraren hornikuntza), kirol-eskaintza handitzea, kultura, aisialdia eta natura eskurago izatea... Aldizkarian ezin dira den-denak aipatu. Hala ere, udalerriko auzo eta inguruetatik buelta bat emanda edo asetako beharren datuei erreparatuta, aise egiaztatu daiteke zer-nolako proiektuak gauzatu diren eta zenbat pertsonen beharrak ase diren.

Lanean jarraitzen dugu etorkizunaren alde, ezaugarri berberekin: zintzotasuna, ahalegina, gogoia eta gardentasuna. Etorkizun hurbilaren atezuan ilusio handiak ditugu, besteak beste, Barbadun ibaiaren ondoko pasealekua luzatzea, El Pobaleko burdinolaraino.

Herri bat hobetzeko ahalegina ez da sekula agortzen; egindako ahaleginaren neurria gorabehera, beti geratuko dira gauzak egiteke. Gaur egungo udalbatza hasierako egunetako gogo berberarekin ari da lanean, behar horiek asetzeko, behar berriak agertuko badira ere.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik.

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea



## Udalak zorrotzago kontrolatuko du GLLak nora bideratzen diren

Udalak, 2015. urterako, helburu nagusi bat dauka: Gizarte Larrialdietarako Laguntzei (GLL) eustea, laguntza hori eskatzen duten ahalik eta pertsona gehienei zerbitzu emateko eta ematen diren diru-kopuruaren onuradunak zorrotz kontrolatzeko. Legegintzaldi honetan, GLL-rako aurrekontu-partida 144.000 eurokoa da.

GLLak gastu zehatzetara eta egoera berezietara bideratutako laguntzak dira, Muskizko udalerrian. Gizarte-zerbitzuek zorrotz kontrolatzen dituzte partida guztiak eta horiek jasotzen dituzten pertsonak. 2014an jasotako laguntza justifikatu ezean, laguntza jaso dutenek ezingo dute hori berriro eskatu. Gainera, kasu horretan, bide

betearazlea irekiko da, kopuru horiek itzulia izan daitezten.

GLLa emateko 2015ean ezarritako irizpideak, besteak beste, honako hauek dira: 8.000 eurotik gorako balioa duten altzariak ez edukitzea (edo aurrezkirik, bankukontuetan); urteko ordainsaria 12.000 eta 18.000 euro bitartekoa izatea, familia-unitatea osatzen duen pertsona-kopuruaren arabera, eta etxebizitza bakarraren titularrak izatea.

2014an, Udalak 148.174 € inbertitu zituen Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan, eta, guztira, Muskizko biztanleek egindako 256 eskakizuni erantzun zien.

### Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) banaketa

Errenta	%27
Argia, gasa, ura, komunitatea...	%44
Hipoteka	%11
Elikadura	%17


### Lagundutako taldeak

Adinduak, menpekotasuna, ezgaitasuna	%15
Haurrak, familia, biztanleria orokorra	%56
Gizarte-bazterkeria	%1
Atzeritarrak / Etorkinak	%7
Ijitoak	%1
Emakumeak / Genero-indarkeria	%12
Bestelako taldeak	%1,5

## Udalak Muskizko osasunari buruzko datuak eskatu zituen

Udalak eskakizuna egin zion Bizkaiko Osasun Publikoko Zuzendariordetzari, udalerriko osasunari buruzko datuak aurkez zituzan, eta jakinarazi zezan ea zer-nolako ekintza-ildoak lantzen ari

den erakunde publiko hori. Legebiltzarreko agerraldi batean azaldu zituzten irizpide horiek, joan den otsailaren 18an, Bizkaiko udalerrri guztien balorazioa egin baitzuten bertan.



## Barbadun ibai ondoko pasealekua luzatuko da, El Pobal burdinolaraino

**B**arbadun ibai ondoko pasealekuak, gaur egun, La Arena hondartza eta Muskizko erdigunea lotzen ditu; orain, luzatu egingo da, El Pobal burdinolarainoko bidea eginez. Proiektu horrek, 4 kilometro luze denak, ahalbidetuko du udalerriko auzo guztiak lotzea, batzuetan zabalagoa eta beste batzuetan estuagoa izango den bidearen bitartez. Horri esker, adibidez, Nesillako bizilagunek posible izango dute, segurtasun osoz, beren bizilekutik hirigunera joatea, proiektuak aurreikusten duen bidezidor berri bat erabilita.

Ibai ondoko pasealekua Bilotxi zubiaren azpitik pasatuko da, eta El Pobal burdinolaraino jarraituko du, Mayor ibaiaren ibilguari jarraiki; horrela, URAK ezarritako baldintzak beteko dira, erakunde hori baita ibai-ibilguak zaintzeko eskuduna. Ibaien arteko lotura egurrezko pasabideen bitartez egingo da, ingurumenean egoki txertatutako direnak, eta, beraz, oinezkoek aisialdi eta atsedenerako gune berri bat izango dute gozagarri, Muskizko gainerako aisialdi-gunez gain.



## Ia 5 milioi aurreztu dira energian

Udalak enpresa bat kontratatu du energia-hornikuntza erostean, instalazioen prebentzio-mantenua egin dezan eta matxura zehatzak konpon ditzan, eta, era berean, instalazio guztiak eta energia-kontagailuak zaindu ditzan. Udalaren energia-kudeaketa berriari esker, gastu publikoaren %25 aurreztuko da, alegia, gutxi gorabehera, 3.750.000 euro, kontratua indarrean dagoen denbora-tartean. LED argiak erabiltzeko azken ekintzak ere kontuan hartzen baditugu, guztira, 4.834.500 € aurreztuko dira. Era berean, ekimen horren barruan, energia modu eraginkorrean kudeatzeari eta energia berdea erosteari buruzko ISO 50001 Araua indarrean sartzeari aurreikusitako da.

## Energiaren alorrean, zer norabide?

“Atez atekoa” lelotzat hartuta, udalbatzak aholkularitza-zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen die energia-fakturetan aurreztuko interesa duten biztanleei. Zerbitzu horretako langileek honako honi buruzko informazioa emango dute: etxebizitza bakoitzeko potentzia aproposena eta merkatuko eskaintzarik onena, prezioaren arabera, energia berriztagarrien erabilerean arabera edo bi alderdi horiek uztartzearen arabera. Abian dagoen esperientzia pilotuan jasotako datuei erreparatuta, etxe bakoitzean 125 euro aurreztuko lirateke urtero, batez beste, eta, kasu batzuetan, 185 euroa arteko kopuruak aurreztuko lirateke.

## 17 lagun lan-merkatura sartu dira

Udalerrriak 220.000 euroko partida bideratu du Muskizko 17 biztanle lan-merkatura sar daitezkeen, 6 hilabetez. Plan honek bat egiten du enplegua eta formazioa sustatzeko ekintza zuzenekin; izan ere, FORLAN erakundeak jarri ditu martxan legegintzaldi honetan, eta, orotara, 1.744.958 eurotik gorako inbertsioa izan da, lanik gabe zeuden 117 lagun kontratatatzeko. Azken lau urteotan, Formazioa Laguntzeko Programak 25.000 euro banatu ditu 70 lagunaren artean, eta 2012an indarrean sartu zen Kontratazioa Laguntzeko Programak, aldiz, 477.000 euro eman ditu kontratatutako 107 lagun eta 54 ekintzailearen artean.

### Enplegu zuzena

2011	Enplegu-plana	24	262.800,00
2011	Enplegu-zentroa	1	42.000,00
2011	Burdinola	2	192.000,00
2011	Hondartzainak	5	40.725,05
2012	Hondartzainak	5	42.140,00
2012	Burdinola	1	6.599,63
2012	Burdinola	2	173.492,68
2013	Enplegu-plana	19	240.352,00
2014	Enplegu-zentroa	1	44.000,00
2014	Enplegu-plana	19	229.549,11
2014	Enplegu-plana	21	251.300,00
2015	Enplegu-plana	17	220.000,00

**117 1.744.958,47**



## Hitzarmena EHUrekin

Udalak hitzarmena sinatu du Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Pintura Unibertsitate Masterreko ikasleek praktikak egin ditzaten udalerrian. Santelices poligonora eta Campo auzora sartzeko bidean horma bat dago, eta, praktiken ekimena gauzatzeko, ikasleek horma hori txertatuko dute paisaian. Hormak 50 metro neurtzen ditu luzeran, eta garaiera aldakorra du, bi eta hiru metro bitartekoa; udalerraren itxura hobetzeko ekimena da horma hori margo-tzea, beste ekintza asko bezala.



## Pobeñako aterpetxea berritzea

Udalak 24.800 euro inguruko inbertsioa egingo du Pobeñako aterpetxean hobekuntza-lanak egiteko. Helburua da aterpetxeko instalazioak egokitzea Santiago Bidea dabilzan erromesen beharizanetara. Honako lan hauek egin behar dira: igeltserotza-lanak, iturgintza-lanak, elektrizitate-lanak eta aterpetxeko altzariak zaharberritzea. Aurreikusitakoaren arabera, lanak hilabeteko epean egingo dira, udaberrian.

## 80 urtetik gorako pertsonen etxebizitzetako segurtasuna

Udalbatzak enpresa aditu bati eskatu dio ke-detektagailu bana ezarri dezala 247 etxetan, hain zuzen ere, bi etxe-motatan: 80 urtetik gorako pertsonak bizi diren etxetan, beraiek bakarrik, eta/edo bi bizilagunek 80 urtetik gora dituzten bestelako elkarbizitza-unitateetan. Proiektu horren aurrekontua 21.175 eurokoa da urteko, 2015ean garatuko da eta lau ekintza zehatz ditu: etxe bakoitzerako azterketa pertsonalizatua egitea, ke-detektagailua instalatzea, etxebizitza husteko krokisa egitea (sute-kasuetarako) eta Gizarte Beharriaren Behatokia sortzea, egoera bereziki zaurgarrian dauden pertsonak artatzeko.

Ke-detektagailuen sistema bat instalatuta, programan parte hartzen duten adinduen segurtasuna areagotzeaz gain, pertsona horiei aukera ematen zaie euren autonomia luzaroago mantentzeko, euren etxe propioaz eta inguruaz luzaroago gozatzeko asmoz.

Zerbitzu horren esleipena jasotzen duen enpresaren ardura izango da etxebizitzetara behar adina bisita egitea, ke-detektagailuen kokapena aztertzeko eta etxebizitzak husteko krokisa egiteko. Tek-



nikariak dagokion moduan identifikatuko dira, arriskuen analisia egingo dute –ezin onartuzko arriskuak desagerrarazteko asmoarekin– eta detektagailuak instalatuko dituzte. Detektagailuek, hain zuzen ere, soinu-alarma bereziak dituzte, pertsona adinduentzat berariaz diseinatuak.

## Pool Gym Corner bat daukan lehen udalerrria

Muskiz udalerrri aitzindaria da Bizkaian; izan ere, Pool Gym zirkuitu bat dago udal-kiroldegiko ekintza-eskaintzaren barruan. 25 metroko igerilekuan makina berezi batzuk instalatu dira, uretako fitnessa egiteko berariaz diseinatuak, eta, hori eginda, 18 urtetik gorako bazkide guztiak erabili ahal izango dute gune hori, dohainik. Pool Gym Corner berriak igerileku handiko kaleetako baten erdia hartuko du, eta, momentuz, igerilekua gutxien erabiltzen den ordutegietan egingo dira saioak –30 minutu ingurukoak–: eguerdi inguruko ordutetan eta asteburuetan.





## ***Punta-puntako udalerrria gune kardiobabestuei dagokienez***

**U**dalak doako tailerrak jarri ditu martxan, Oinarrizko Bizi Euskarriari eta Desfribiladore Erdiautomatikoei buruz; horren helburua da muskiztarren %25 formatzea, hartara, Muskiz Estatuko udalerrri aitzindarietako bat bilakatzeko, eta Europa mailan ere erreferentzia izateko, gune kardiobabestuen alorrean. Behar bezala onetsitako hamalau irakaslek, Babes Zibilerako Elkarteko kideak denak, emango dituzte doako ikastaroak, Gaztegunean. Formazio-jarduerak asteazkenero egingo dira, 10:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, bai eta larunbatetan ere, 11:00etatik 13:00etara. Ekai-

nean amaituko dira. Hala ere, interesa duten guztiak parte hartzeko aukera izan dezaten, talde gehiago antolatuta daitezke, interesdunen ordutegien arabera.

Udalaren nahia da Muskiz Europako erreferentzia bilakatzeko gune kardiobabestuen alorrean; horretarako, litekeena desfribiladore erdiautomatiko berriak erostea. Helburua da 10.000 biztanleko 16 ekipamendu lortzea eta beste herrialde batzuen batez bestekoa gaintzea, adibidez, Frantziarena, hori baita, gaur egun, alor honetako aitzindarietako bat, 10.000 biztanleko 15,38 ekipamendurekin.



## ***Chiquita bidea osorik berritzea***

La Rigada eta Kobaron auzoen arteko sarbidea osorik berritzeko planean honako lan hauek aurreikusten dira: denboraren poderioz nahiko kaltetuta dagoen espalo bat berritzea eta euri-uren hoditeria-sarea hobetzea. Sarbide hori, normalean, inguruko biztanleek eta euren landa edo larreetara doazen abeltzainek erabiltzen dute.



## ***Jolasguneen hobekuntza***

Ikastolako Gurasoen Elkartearen eskakizunei erantzunez, Udalak hainbat hobekuntza jarriko ditu abian: zoruko kautxuzko laua txikiak aldatzea, txirrista berri bat jartzea, eta hezkuntza-zentro horretan jada bazuden bi jolasguneetako jolasak zaharberitzea.



## ***Villanueva saneamendua***

Villanueva auzoaren saneamendua-ren 2. fasea esleitu da, 60.000 euroko aurrekontuarekin, alegia, %57 aurreztuta, lizitazioaren kopurua kontuan hartuta. Esleipena jaso duen enpresak Muskizko bi langabe kontratatu behar ditu.



## ***Los Vahoseko bidea zaharberitzea***

Martxan dago Los Vahos eta Bilotxirako bidearen zaharberitze-lanak gauzatzeko espedientea, 77.700 euroko aurrekontuarekin. Honako lan hauek aurreikusten dira: hormigoizko bide-zorua berritzea, euri-uren hoditeria hobetzea eta euste-sistemak ipintzea luiziak kaltetutako eremuan.

## Elkarrizketa



### **Barbadun Pelotazale Elkartea: taldearen izen onari eusteko gogoz**

Bi urte barru, Barbadun Pelotazale Elkar-teak berrogeita hamar urte egingo ditu, eta, gaur egungo zuzendaritza-taldeak po-zarren ospatuko luke urtemuga hori haur pilotazaleen harrobi zabalarekin, elkarteak diziplina honetako maila gorenean jarrai dezan. Hasieran, zale talde bat baino ez ziren, herriko frontoiak erratzez garbitzen zutenak, eta, ibilian ibilian, Euskadiko pala-txapeldun bat lortu dute, eta, esku pilotan, ordea, Bizkaiko eta Euskadiko hainbat txapeldunorde.

**G/ Elkarte aktiboa zaretela esan dezake-gu?**

*E/ Barbadun Pelotazale Elkartean 40 gaz-tetxo inguru daude, Bizkaiko Federazioak antolatutako txapelketetan parte hartzen dutenak. Hala ere, talde gisa, Muskizen ere*

*sustatzen dugu pilota, eta, horretarako, he-rriko jaietan, San Joanetan, txapelketa bat antolatzen dugu, eta, horrez gain, Pilota Campusa ere egiten dugu. Aurtengoa du hi-rugarren edizioa, eta, gutxi gorabehera, 50 haur etortzen dira.*

**G/ Zer da taldearen helburu nagusia, gaur egun?**

*E/ Garrantzitsuena da nabarmentzen ari di-ren gazteak gurekin geratzea, ez dezatela tal-detik alde egin beste kirol handiago batzuen sonak erakarrita, adibidez, futbolar. Era be-rean, pilotan jokatzeko zaletasuna gazteenen artean errotu nahi dugu. Harrobia sustatu behar dugu, Barbadun Pelotazale Elkarteak gailurrean ospa dezan 50. urteurrena.*

**G/ Atzera begira ipinita, esango zeni-**

**guke zertaz zaudeten harroen?**

*E/ Talde umila gara, oztopoak oztopo, Eus-kadiko pala-txapeldun bat lortu duena. Hori da Muskizek pilotaren munduan izan duen erre-presentazio gorena. Hori aspaldi izan zen, baina kimuen eta gazteen sailean izan onari eusten diogu, eta Bizkaiko eta Euska-diko esku-pilota txapeldunordeak izan dira azken urteotan.*

**G/ Muskizek ba al du instalazio egokirik pilotan jokatzeko eta kirol hau sustatze-ko?**

*E/ Ezin gara kexatu. Aurreko zuzendaritza-taldeen askoz nekealdi gehiago bizi izan zi-tuzten alderdi horri dagokionez. Gaur egun, bi frontoi estali ditugu, herriko erdigunean, bai eta instalazio xumeagoak ere herriko au-zoetan. Orain, harrobia baino ez zaigu falta.*



### **Menpekotasuna duten senideen zaintzaileei aitortzea**

Joan zen urtarrilaren 29an, Meatzari Aretoan, aitortza-jardunaldi bat egin zen, menpekotasun-egoeran dauden senideak zaintzen dituzten muskiztarrei aitortza egiteko; pres-takuntza profesionalik gabe eta familiako gainerako kideen aurretiazko adostasunik gabe egiten dute lan hori. Ekitaldian, udalbatzako kideek plaka oroigarri bana eman zieten Itxaropena Elkarteari eta Emakumeen Elkarteari, horiek aukeratu baitziren zaintzai-leen taldearen udaleko ordezkari gisa. Ekitaldi horrek amaiera eman zion sentsibilizazio-kanpaina bati; kanpaina horren helburua zen herritarrek jabetzea pertsona horiek egiten duten lanaz, beren bizitzan parte handi bat eskaintzen baitiote, irabazi asmorik gabe, be-ren senideen zaintzari, eta, gehien-gehienetan, ez baitute esker-hitzik jasotzen.



### **Aste Santuko IV. Kirol Campusa**

Udalak antolatutako aisia-jardueren pro-gramaren barruan, txikienek ere badute tokirik. Aste Santuko oporraldian IV. Kirol Campusaz gozatzeko aukera izango dute. Goizeko 09:00etatik hasi eta 14:00ak arte, haurrek jarduera hauek egin ahal izango dituzte: arku-tiroa, tirolinak, eskalatzea, aire-akrobaziak, malabarrak... Dena dela, aurtengo edizioan, Sopuerta Abenturarako txangoa izango da jarduera "izarra".